

EAJ-PNV-REN BATZAR NAGUSIA

2021EKO AZAROAREN 27AN ETA 28AN

GAURKO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA, EUSKADIREN ETORKIZUNA ERAIKITZEKO

SARRERA

126 urte bete dira Sabino Aranak 1895ean Euzko Alderdi Jeltzalea sortu zuenetik, Euskal Herriaren askapen nazional eta soziala lortzeko tresna gisa. 126 urte luze hauetan zehar, Euskadik eta gure Alderdiak askotariko gorabeherak, egoerak eta aldaketak bizi behar izan dituzte. Sarri askotan, EAJ-PNVk erabaki konplexuak hartu behar izan ditu, planteamendu etiko eta demokratiko sakonak eginez eta aberrigintza eta gizartekintza lanetan aurrera egin nahirik, inguratzen gaituen munduan euskal nortasuna defendatzeko eta finkatzeko ahaleginari gogor eutsiz eta bide luze honetan euskal komunitate osoa integratuz.

Zailtasun guztiak gorabehera, EAJ-PNVk era guztietako itsasoetan nabigatzen jakin du, gure betiko norabideari eutsiz, betiere, gure herriak aurrera egin dezan eta, etorkizunean, Euskadi Europako eta munduko gainerako herrien pare egonik, bere patuaren jabe izan dadin.

Aberrigintzan eta gizartekintzan urrats sendoekin aurrera egiten jarraituko badugu, lehenik eta behin egin beharrekoa da noraino iritsi garen ikustea, eta ez da gutxi. Hutsegitea izango litzateke egindakoa gutxiestea. EAJ-PNV sortu zen euskal erakundeak desagerrarazi zituzten garaian, gure euskal hizkuntzak atzerakada nabarmena ezagutu zuen aldian, landa-eremutik hiri-eremurako gizarte-aldaketa handia ematen ari zela eta Euskaditik kanpoko gero eta pertsona gehiago zetozeela, bestelako gizarte bat sortuz, eraldaketa bidean.

EAJ-PNVk aldaketa haiek guztiak ulertzen jakin zuen. Egingarri ikusi zuen bidea aukeratu zuen: Autonomia estatutua. Lehen urratsak armek eragotzi zituzten, garai hartan gero eta indartsuago bilakatzen ari zen euskal kulturaren berpizkundearekin amaituz. Diktadura bat sufritu genuen, bai eta erbestealdia ere, baina belaunaldi hartako euskal herritarren jokaerari esker, gure erakundea indartsu berpiztu zen Trantsizioa iritsi zenean. Lehenagoko indarrak bizirik jarraitzen zuen, eta berriro heldu genion autogobernu esparru berriak lortzeko ahaleginari.

EAJ-PNV izan da Euskal Herriak bere autonomia eta ahalik eta autogobernu mailarik handiena lortzeko erakutsi duen nahiari erantzun dion lider nagusia. Beste batzuek jarri zizkiguten oztopoen gainetik eginez ere, hauen artean eta oso bereziki Ezker Abertzalea.

ETAK hamarkada luzeetan ezarri zigun indarkeria zama astuna izan da ibilbide honetan guztian. Indarkeria horren gainetik eginez, aurrera egin dugu, esparru sozialean, ekonomian eta kulturaren. Gaur duela 40 urte baino nazio indartsuagoa gara, Aberrigintzan zaildu gara eta euskal gizartearen gehiengoaren konfiantza irabazi dugu, egunez egun landu behar dugun zerbait. Gaur gara bere buruaz jabetuago dagoen Herria. Baina gizarte eta inguratzen gaituen mundua desberdinak dira. Herritarren asmo pertsonalak ez dira duela hamarkada batzuetako berberak. Eta biharkoak gaurkoak ez bezalakoak izango dira. Era berean, nazioarteko egitura politikoen etorkizuna etengabe aldatzen ari da.

Horregatik, beste behin ere, eta XXI. mendearen lehen laurdena betetzera hurbiltzen ari garen aldi honetan, mundu osoan ziurgabetasunez eta eraldaketaz betetako garaiak bizitzea tokatu zaigu, eta gu ez gaude horretatik salbu. Horregatik ere, ezin gara konforme geratu. Etengabe bilatu behar dugu gure gizartean eta gure inguruan gertatzen denaz jabetzea eta erne egotea, berrikuntza politikoko dosi handiak aplikatzen jarraitu behar dugu, Euskadik etorkizunera begira hartuko duen ibilbidean eta gure askatasun osoa lortzeko bide luzean unean uneko politikak eta erritmoak aplikatuz.

Honaino ekarri gaituzten XX. mendeko paradigmek jada ez dute balio urrats bizkorrekin aldatzen ari den eta gero eta txikiagoa, konplexuagoa eta azkarragoa den mundu baten aurrean, polo geopolitiko aldakorrekin. Zalantzarik gabe, mundu-mailako harreman sozial eta politikoen ziklo-aldaketari egin behar diogu aurre. Orain dagokigu gure buruari galdetzea euskal abertzaletasunari zein erronka planteatuko zaizkion, datozen hamarkadetan itsaso berri eta ezezagunak nabigatzerako orduan.

Egungo une historikoaren garrantziaz jabetuta eta, aldi berean, batzuetan erabat ulertzeko gai ez garen aldaketa teknologiko, ekonomiko, sozial eta kultural azkarrez jabetuta, eta COVID-19aren pandemiak mundu osoan duen eragin sakon eta erradikalaz jabetuta, EAJ-PNVk euskal gizartearekin partekatu nahi zuen diagnostiko-gogoeta bat hasteko erabakia hartu zuen, Euskal Herriari gure hurrengo belaunaldien etorkizuna markatuko duten gaiei buruzko gure ikuspegia eskaintzeko. Lehenik eta behin euskal gizarteari eskaintza egin, ondoren entzuketa aktiboa abian jarri, gizartearekin batera egin beharreko bidean asmatzen ahalegintzeko.

Hausnarketarako gidalerro multzo bat osatu nahi izan dugu, Euskal Herriaren eta haren erronken diagnostiko gisa, ziurgabetasunaren ur malkartsuetan nabigatu ahal izateko, Euskal Herriak mundu azkar eta global honetan bizirauteko funtsezkoak diren galdera batzuei erantzun egokienak bilatzen saiatuz.

Gure euskal talaia txiki honen apaltasunetik abiatuta, euskal gizarteari gure diagnostikoa eskaini nahi diogu aurrean ditugun erronkei buruz, datozen urteetan Euskadiren agenda politikoa eta bilakaera markatuko dutela uste baitugu. Diagnostiko horrek balio du euskal gizartearekin hitz egiteko, haien eskaerak entzuteko, Herriarentzat funtsezkoak diren gaiak adosteko eta etorkizun hobea lortzeko urrats sendoz aurrera egiteko.

HASIERAKO ABIAPUNTUA

Azken urteotan argitara atera diren nazioarteko erakundeen edo kide anitzeko erakundeen txosten ugari ohartarazten ziguten tokiko inpaktu ukalezina duten joera globalei buruz. Bizkortze teknologikoa eta horrek mundu mailako prozesu eta zerbitzuen digitalizazioan eta robotizazioan duen eragina, klima-aldaketa, iraunkortasuna eta trantsizio energetikoa, hiri-kontzentrazioarako joera, eraldaketa demografikoa eta migrazio-mugimendu global berriak, lan-munduaren eraldaketa eta enplegarritasuna, gaur egun ezagutzen dugun bezala, klase ertainen krisia eta ongizate-Estatua –demokrazia liberalen esparruan–, gizarte-desberdintasunaren edo gizarte-segurtasunaren eraldaketa, izan dira eta dira munduko agenda globalean agertzen ziren gaiak, bai eta Euskadikoan ere.

Hala ere, txosten eta aditu horietako bakar batek ere ez zigun ohartarazi 2020ko hasieratik hona bizitzea eta sufritzea egokitu zaigun COVID-19aren pandemiarekin. Aldi honetan ikasi ahal izan dugu mundua aldatu egiten dela, eta oso azkar egiten duela, gainera. Ziurgabetasuna eta aldaketen erritmo bizia dira gure garai historikoaren ezaugarri garbiak, eta gure Herria ez da horretatik libratu.

Halako egoera baten aurrean, galdetu behar duguna da Euskal Herriarentzat ezinbesteko gertatzen diren hiru gairi zer erantzun eman behar diogun: izan, bizi eta elkarrekin bizi. Izateari dagokionez, oinarrizko galderetako bat da: zer esan nahiko du euskaldun izateak edo euskalduntasunak gero eta globalagoa den munduan non euskal identitatea eboluzionatuko den eta etorkizunera begira eraldatuko den?; alderdi ekonomikoari ere erantzun behar zaio, hau da, zeintzuk izango dira gaurkoa moduko trantsizio garai batean hurrengo hamarkadetako Euskadin aberastasuna, ongizatea eta enplegua sortzeko motorrak? Gizarte kohesioarena da beste gaia, besteak beste ondorengo galderak eginez: nola bermatuko ditugu politika sozial aurreratu eta unibertsalak, belaunaldien arteko elkartasuna, eskubideen eta betebeharren arteko oreka eta sistemaren beraren iraunkortasuna, gero eta zaharrago bihurtzen ari den euskal gizartean?

Halako gaiak, bai eta antzeko beste batzuk, erantzuten errazak ez direnak, baina ezinbestean jorratu beharko ditugunak. Horregatik, EAJ-PNVren aldetik, Isaac Newton zientzialariak duela mende batzuk eman zuen gomendioari jarraiki, “erraldoien ezagutzaz” baliatu nahi izan dugu, gizarteko askotariko esparruetan aditu diren berrogeita hamar emakume eta gizonenaz alegia, eta haiek lagundu digute eungo euskal errealitatearen diagnostikorako gakoak identifikatzen, haratago ikusi ahal izateko.

Gure gaurko eta etorkizuneko gizartean puri-purian dauden eta egongo diren gaien inguruko eztabaida, kontraste eta hausnarketa sakonak egin ditugu azken hilabeteotan, eta orain EAJ-PNVren Batzar Nagusiaren eta alderdikide guztien zerbitzura jartzen ditugu, ondoren, euskal gizarteari eskaintzeko, Euskal Herriari entzuteko eta gure askatasun osoa lortzeko bidean hemendik aurrera eman beharreko urratsetan asmatzeko.

IZAN

Mendearen lehen laurden honetan eta etorkizunera begira “euskaldun” izateak esan nahiko duenaz hausnartu dugu.

Komunitateko kide izateko eta sentitzeko, ezinbestekoa da sinboloak, tradizioak, oroimen historikoa, kultura, erakundeak eta hizkuntza partekatzea. Gure kasuan, euskara, gure elkargoari bere izaera berezia ematen diona. **Euskara da** gure nortasunaren funtsezko ezaugarria eta, beraz, bultzatu eta zabaltzeko beharreko elementu nagusienetakoa da euskal identitateak munduan bizirautea nahi badugu.

XX. mendea mugarri bat izan da euskararen historian. Pronostiko guztien kontra eta milurteko luzean atzerakada etengabea egin ondoren, iragan mendearen erdian euskarak suspertze-prozesu harrigarria ezagutu zuen gaur egunera arte iraun duena, besteak beste EAJ-PNVk gure hizkuntza berreskuratzeko egin duen lanari esker eta euskal gizartea osoaren konpromisoari esker. Izan ere, gaur egun euskara dakitenen erdiek ez dute ama-hizkuntza gisa jaso, berreskuratze-prozesu horri esker baizik. Euskarak etorkizuna du, baina horrek ez du eragozpen izan behar EAJ-PNVren aldetik euskal gizartean hizkuntzaren ezagutza zabaltzen jarrai dezagun eta bere eguneroko erabilera gizarte eleaniztun batean zabal dezagun, erabateko hizkuntza-normalizazioa lortuz.

Kulturaren eskaintza zenbat eta aberatsagoa izan, orduan eta hurbilago egongo da kontsumitzailea komunitatetik, eta euskal komunitate horren sentipenaren eta izatearen transmisio handiagoa emango da. Horregatik, bide eman behar diegu Euskadiko behar artistikoei eta ekosistema kultural berriak sortzeari. Zatikaturako espazioan elementu komunak aurkitzeko estrategiak hedatu behar ditugu. Euskal gazteek erabiltzen dituzten komunikazio-bitartekotzako espazio zatikatu asko eremu globalekoak dira. Estrategiak behar dira zatikaturako espazioan elementu komunak eta modu naturalean partekatutako sinbolo globalak aurkitzeko, euskaldunen arteko lotura eta konexio elementu gisa balio dezaten.

Ildo beretik, **kultura-ekoizpen propioari begiratu behar diegu**. Gaur egun, eduki kulturalak globalak dira. Eta gure Herrian kontsumitzen den edukitik asko, Euskal Herritik kanpokoa da. Tokiko esparruak ez du kontrolik ez bidearen ez interakzio-edukiaren gainean. Ondorioz, komunikazio-bideetan eragitea zailagoa dela kontuan hartuta, ekoizpen propioko edukia sustatu behar dugu. Jakin behar dugu zer faktorek lagun lezaketen fikzioan eta entretenimenduan oinarritutako euskal ikus-entzunezkoen industria garatzen, lehiakortasun-baldintzetan eta nazioarteko merkatuetara ateratzeko eta berritzeko asmoarekin.

Hezkuntzak kulturaren transmisioa ahalbidetzen duen mekanismo gisa duen zeregina funtsezkoa da. Helburua izan behar da gure Herriko historian, hizkuntzan, kulturean, trebetasun teknologikoetan eta ikasketa etikoan hezteak.

Hezkuntza lehentasun da EAJ-PNVrentzat. Gure herriko hezkuntza-sistemak erronka demografikoari, erronka teknologiko digitalari eta garapen jasangarriari egin behar die aurre, ahaztu gabe helburu zorrotzagoak dituzten hainbat erronka, hezkuntza-kalitatea, gizarte-kohesioa eta desberdintasunen aurkako borroka ardatz dituztenak, aniztasunari eta kulturartekotasunari erantzuna emango dietenak eta bikaintasunerantz aurrera egingo dutenak.

Hegoaldeko jaiotza-tasaren etengabeko jaitsierak eta atzerriko jatorriko immigrazioaren igoerak gure lurraldearen eta, ondorioz, gure eskola-sistemaren osaera soziala aldatzen ari da, eta eragin handiagoa du gizarte-aniztasun handiagoa duten zenbait eremutan. Horren aurrean, lehentasunezkoa da kohesioa eta oreka bultzatuko dituzten neurriak garatzea, bai eta ikasle guztien arrakasta lortzera bideratutako kalitatezko hezkuntza-proiektuak bultzatzea ere.

EAJ-PNVren aldetik Euskal hezkuntza-sistema bat eskaintzen dugu, etengabe aldatzen ari den gizarte batera egokitzeko gaitasuna izango duena, disrupzio teknologikoko testuinguru azkar batean murgilduta, gaitasun digitalak ez ezik, pentsamendu kritikoa, sormena eta prestakuntza humanista ere indartuz. STEAM bokazioak sustatu behar dira hezkuntza-etapa guztietan, batez ere neskengan, ikasleak ahalduzko eta etorkizuneko erronken aurrean behar bezala prestatzeko.

Hezkuntza bere printzipioetan, metodologian eta edukietan birpentsatu behar da, euskara eta euskal kultura ardatz hartuta, ikaskuntzaren oinarri izan behar duen eta hizkuntza-normalizazioan, kulturarekiko konpromisoan eta gizarte-kohesioan lagunduko duen berezko nortasunaren ezaugarri gisa.

Bizikidetzak positiboa, halaber, ikasleen garapen integralerako hezkuntza-sistemaren ardatz gisa hartu behar da, hezkidetzak eta aniztasunarekiko errespetua adierazpen guztietan sustatzen dituzten balioak oinarritzat hartuta.

EAJ-PNVren proiektu politikoak Euskal hezkuntza-sistemaren eraldaketa pedagogikoaren prozesua bultzatzea du helburu. Prozesu horretan, ebaluazioa prestakuntza-tresnatzat hartu behar da, eta ikasleen, ikastetxeen eta hezkuntza-sistemaren beraren berrikuntzara eta hobekuntzara bideratu behar da.

Azken batean, eskola-ingurunearen errealitate berriak, aniztasun etniko, sozial, kultural, sexual eta linguistiko gero eta handiagoarekin, berresten du gure sistemak bizikidetzaren positiboa eta ekitatea jarri beharko dituela hezkuntza-politika eta hezkuntza-programen ardatz egituratzaile gisa, ikasle guztien eskola-arrakasta erraztuko duen eskola-sistema inklusibo eta kohesionatua bermatzeko, haien inguruabarrak gorabehera.

Hori lortzeko, EAJ-PNVren aldetik Euskadin akordio politiko zabala ahalbidetzea bilatuko dugu, negoziazioaren eta itunaren bidez euskal tradizio politiko-ideologikoak atxiki ahal izateko. Euskal hezkuntzaren aldeko **herri akordio zabal bat** osatu behar dugu, oinarri sendoekin eta mundu aldakorrera egokitzeko malgutasunarekin, denboran iraungo duena eta euskal nortasunaren hazkundera bultzatuko duena.

Era berean, **euskalduntasunaren kontakizun historiko bat** sortzeari ekin nahi diogu, berezko ondare kulturalaren ulermen nazionala irudikatuko duena eta nazioaren ideia zehatza eskainiko duena. Memoria kolektiboa da jarraitutasun-zentzuaren aliatu nagusia. Euskal iruditeria osatzen duen ondare ukiezina, oroimenaren lekuak, aurreko belaunaldiak ondorengoekin lotzen dituen herentzia bizia dira.

Entitate horien nortasuna beren kulturarekin estuki lotuta dago, eta kultura hori, funtsean, iragana erabiltzea ahalbidetzen duen mekanismo bat da, orainari nolabaiteko zentzua emateko. Memoriaren tokiek, funtsean, berezko kultura-ondarearen nazio-ulermena adierazten dute, eta nazioaren nolabaiteko ideia eskaintzen dute. Memoria horren eta ondare horren funtsezko zati bat sinboloak dira. Horregatik da garrantzitsua sinboloei balioa ematea euskal identitatea eratzen duten elementu gisa. Herri guztietan partekatzen diren sinboloak eta balioak, norberaren identitatea eratzen duten elementu gisa.

Euskal nortasuna biziraunarazteko etengabeko ahalegin horrek autogobernurako dugun borondatea defendatzera eta botere politiko gehiago eskatzera eraman gaitu, konstante historiko gisa. Ildo horretan, erakundeak egitura egituratzaileak izan dira eta dira. **Euskadiren instituzionalizazioak** identitateari atxikitzeke motor bihurtzeko gaitasuna du. Izan ere, talde-identitatea eragiten duen faktoreetako bat da taldea osatzen dutenen premiak asetzea. Euskal erakundeek euskal herritarren gaiei irtenbideak proposatzeko eta errazteko zeregina betetzen duten heinean, nazio-nortasunaren zentzua indartzen lagunduko dute. Bizitza kalitatea, euskal herritarren ongizatea, Euskadiko gizarte kohesioa eta erakundeek hiritargoarengan sortuko duten konfiantza, garrantzi handiko elementuak izango dira, identitatea motibatzeke faktore gisa.

Autogobernua eguneratzeko prozesuak Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea instituzionalizatzerazuzenduta egon behar du, euskal herritarrek askatasunez eta demokratikoki adierazitako borondateari bide emanez. Bere nortasuna eta izaera nazionala aitortuta, Euskal Herria da erabakitzeko eskubidearen eta eskubide hori baliatzeko erregulazioaren titularra. Eskubide demokratikoa da, aitortu beharrekoa, eta eskubide horren egikaritzea arautu eta itundu egin behar da.

Euskadi errealtate nazional ireki eta anitza da, XXI. mendeko nazioen ezaugarria. Erakundetzeak kidetasun-sentimenduak errespetatzea eta aitortzea izan behar du oinarri, eta helburua da identitate-atxikipenen baldintza-berdintasuna bermatzea.

EAJ-PNVren aburuz, Euskal Herriaren eskubide historikoak bere autogobernuaren adierazpen instituzional gisa erabat gauzatzea euskal herritarrek askatasunez eta demokratikoki adierazitako borondatearen bidez eguneratzen eta gauzatzen da.

Alde horretatik, eta gaur egun Euskadi osatzen duten hiru errealtatetako administrazio-banaketa gorabehera, administrazio-eremu bakoitzeko erakundeen arteko akordioak bultzatu behar ditugu, irmo. Beharrezkoa da zubi instituzionalak zuzenean eraikitzea Aldundietatik edo Eusko Jaurlaritzatik eta Nafarroatik, edo gure hiru lurralde-errealtateak biltzen dituen beste tresna interesgarri baten bidez: Nouvelle Aquitaine-Euskadi-Nafarroa Europako erregioa. Hainbat esparru daude alde bientzat benetan interesgarriak: garraioa, komunikazioak industria edo hezkuntza, eta horietan sakondu dezakegu eta sakondu behar dugu Herri gisa.

Hori dela eta, EAJ-PNVk Euskadiren sendotze instituzionala zaindu behar du uneoro, **konfiantzan eta demokrazia sozialean** sakonduz, berezko nortasun politikoaren ezaugarri gisa.

Aniztasunarekiko errespetuak (kultura, jatorria, erlijioa, generoa, sexu-orientazioa) gidatu behar ditu gure bizikidetzak-politikak. Horrekin batera, aniztasunaren kudeaketa inklusiboa hezkuntzatik, kontzientzia kritikoaren sustapena eta gobernantza demokratikoaren garapena izango dira pertsonak ahalik eta adostasun gehien lortzeko edo ezinbesteko desadostasunak kudeatzeko gaituko dituzten oinarriak. Euskadin bertakoen %10-12 inguruko immigrazioa dagoenez, eta kurba demografikoa ikusita etorkinen kopurua hazi behar denez, elkarrekin harmonian bizitzeko eta gizarte integratu berri bat lortzeko erronka, jaiotza-tasaren aldeko politika eraginkorrak garatzea bezain saihestezina da.

EAJ-PNVren zeregina da, bai eta betiko erronka ere, Euskal Herriak bizirik jarrai dezala, bai eta bere arima kolektiboa eta askatasun politiko handiagoa eskuratzeko dugun borondate irmoak ere.

BIZI

Gure **ekonomiaren etorkizuna** baldintzatuko duten erronkak ere jorratu ditugu, hau da, zertatik biziko garen.

Azken hamarkadetan, Euskadik bere burua berrasmutzen jakin izan du, bai eta bere gizartea eraldatzen eta arrakastaz garatzen ere. Ekonomia sendo eta lehiakor bat sortzea ahalbidetu duen garapen ekonomikoko eredu bat izan da, gizarte-ongizaterako oinarria izan dena. 1980ko hamarkadaren hasieratik, Euskadik autogobernu zabala izan du, eta autogobernu horren elementurik bereziena, ekonomia eta zerga-arloan, Hitzarmen Ekonomikoa da, eta esparru sozioekonomikoan transferentziak gero eta handiagoak dira, nahiz eta oraindik osatu gabeak izan. Horrek erraztu egin du harrezkero edozein Herriren arrakasta ekonomikoaren hiru gako ezartzeko oinarriak ezartzea: a) inbertsiorako eta garapen ekonomikorako mesedegarriak diren inguruneko baldintzak sortzea; b) industria-bokazio argia duen egitura sozioenpresarial sendoa ezartzea; eta c) gizartean garapen ekonomikoa babesten duten kultura eta balioak egotea.

Euskadiko ekonomia eta gizarte-garapenerako ereduak jakin izan du hamarkada hauetan eman diren aldaketetara egokitzen, lehiakortasunaren oinarriak pixkanaka handituz. Hala ere, etorkizunean aldaketa horiek gero eta zorrotzagoak eta azkarragoak izango dira, eta zalantzan jarriko dituzte lortutako arrakastetako batzuk. Horiek aurreikustea gero eta zailagoa izango da, baina erne egon behar dugu etorkizuneko megajoeren aurrean, hau da, Herri osoan eragina izango duten ekonomia, gizarte, ingurumen edo teknologia-baldintzen aldaketa esanguratsuen aurrean. Prest egon behar dugu eta egoerari aurrea hartu.

Garapen ekonomikoaren eta enpresa lehiakortasunaren ereduaren indarra dugu oinarri daukagun ongizate-mailari eusteko eta hura indartzeko, bai eta kalitatezko eta aberastasunezko enplegua sortzeko ere. Eredu horretatik eratorritako diru-sarrera fiskalek ahalbidetzen dute Euskadi Europako eskualde liderretako bat izatea, oreka ekonomiko-sozialagatik eta desberdintasun-indize txikiagoagatik. Klase ertain indartsu eta gero eta zabalagoa garatzen jarraitu behar dugu, hori izango baita garapen ekonomiko eta sozial orekatu baterako zutabea.

Euskadik aurre egin behar dion erronka da lehiakortasun horri eta gure garapen ekonomikoaren ereduaren erresilientziari iraunkortasun-printzipioen pean eusteko gai izatea. Bidean datorkigun etorkizunean ez da aukera izango egoerara ez moldatzea. EAJ-PNVren aldetik hitzematen dugu orain arteko arrakastaren gakoak berrituko ditugula, bai eta al bait arinen konpondu behar ditugun ahultasunak eta gabeziak gaindituko ditugula ere.

Espainiako Estatuko ekonomian pisu erlatiboa galdu dugu azken hamarkadetan; izan ere, EAEko BPGa ez da erritmo berean hazi, eta hori diru-sarrera fiskal erlatiboen bolumen txikiagoan islatzen da, eta, gainera, gizarte-kohesioaren esparruan gastu publikoaren premia gero eta handiagoei aurre egin behar die. Fenomeno hori larriagotu egingo da etorkizunean, egungo pandemiaren, euskal biztanleriaren zahartzearen eta 40 urtez Euskal Herria instituzionalizatu ondoren konpondu gabe geratu diren defizit eta eraginkortasun falta batzuk artatu eta zuzentzeko beharraren ondorioz.

Lehenik eta behin, **inbertsioaren eta garapen ekonomikoaren aldeko inguruneko baldintzei eusten jarraitu behar dugu**. Horretarako, **gaur egungo euskal esparru ekonomikoaren eskala handitu behar dugu**, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean ahulki artikulatuta dagoena, eta are ahulago Iparraldearekin, muga-mugetatik haratago hiri-poloak eta polo ekonomikoak sortzeko joera aprobetxatuz; horrela, prestakuntza, teknologia, industria eta merkataritza harreman sendo eta iraunkorrak bultzatuko dira Hegoalde eta Iparraldearen artean, euskal eskualde ekonomikoa aktiboki landu ahal izateko.

EAJ-PNVren aldetik, Administrazio publiko are berritzaileagoa eta **maila anitzeko gobernantza eraginkorra eta arina bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu**, irizpide berritzaileak aplikatuz funtzio eta zerbitzu publikoetan, bai eta meritokrazia ere, ekonomiari laguntza publikoak ematean, hau da, etorkizunerako potentziala duten enpresak eta proiektuak babestuz. Euskal erakunde-mailen (gobernuak, aldundiak eta udalak) erakunde horien arteko lankidetzan sakondu behar dugu, funtzio-muga argiak zehaztuz, egiturak sinplifikatuz eta eskumen-bikoiztasunak edo sendotasunak ezak saihestu; horrela, erabat kohezionatuta egongo den herri ikuspegia lortzeko. Halaber, lankidetzeta publiko-pribatua sustatzen jarraitu beharko da, eta, horretarako, harremanei eutsi beharko zaie ekonomia eta enpresa-sarearekin, enpresa-errealitatetik ez deskonektatzeko. Azkenik, Euskadiren kanpoko presentzia indartu beharko da, gure herrialde-interesa gure herriarentzat garrantzitsuak diren nazioarteko erakundeen erabakiguneetan kokatuz eta defendatuz.

Arkitektura fiskalak testuinguru global berrietara egokitzea eskatzen du. Are gehiago ustiatu behar dugu subiranotasun fiskala, berrinbertsioa erraztuko duten, inbertsio berria erakarriko duten eta kalitatezko enplegua sortzea erraztuko duten pizgarri fiskalak garatuz, bai eta diru-sarrera fiskalen iturri berrietan pentsatuz ere. Baina, era berean, laneko errenten eta kapitalaren zergapetzean oinarritutako egungo arkitektura fiskala birplanteatu beharko da, negozio-eredu berrietara eta ekonomia digitalaren pisu espezifiko handienera egokitzeke, Europako ingurunean gure burua bereiztea bilatuz.

Europako iparraldeko herrialdeetako **lan-harremanen** antzeko **eredu** bat behar dugu, egungo eredu zaharkitu eta ez-eraginkorra gaindituz. Negoziazio kolektiboa sustatuko duen eredu baten alde egiten dugu, aurrerapen soziolaboralerako eta euskal lan-harremanen esparru propioa ezartzeko bide gisa, pertsonen interesak eta lan-baldintzak defendatuko dituen, eta enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzeko lanari ekingo diona. Konfrontazio-estrategiak gainditu eta horien ordezkari elkarriketa eta negoziazioa erabiliko dituen ereduak, gure enpresa-sarearen lehiakortasun-maila hobetzea ahalbidetuko duten akordioak erraztuz. Ezinbestekoa da, halaber, daukagun lan-prekarietate eta absentismo maila handia murriztea, Espainiako Estatuko eta Europako beste eskualde batzuetakoa baino askoz handiagoa baita.

Ekonomia lehiakor baten giltzarri nagusia **bikaintasuneko hezkuntza-eredua sustatzea da, inklusiboa**. Zaindu egin behar dugu, eta talentua Euskadira erakarri. Gure hezkuntza-sistemak eboluzionatu egin behar du gaur egun ez dauden eta aurre-abisurik eman gabe sortzen joango diren enpleguak prestatzeko eskaerei erantzuteko. Talentua behar dugu trantsizio energetikoan, digitalizazioan eta etorkizuneko teknologia eta sektore berri guztietan. Euskadik ospe bikaina du nazioartean lanbide-heziketako gaietan, baina aurrera egiten jarraitu behar dugu lehen eta bigarren hezkuntza inklusiboagoetan eta zerbitzuen sektorerako hobeto egokitutako lanbide-heziketan. Ahaleginak areagotu behar dira gure unibertsitate-sistema nazioartean posizio egokian kokatzeko, bikaintasuneko unibertsitate-hezkuntza finkatuz (bereziki garapen ekonomiko eta sozialerako funtsezkoak diren arloetan eta gaietan).

Bigarrenik, gure ekonomia eta enpresa-egitura egokitu eta indartu behar dugu, eta, horretarako, **enpresak gure lurraldean geratzea ahalbidetuko duen ekosistema indartu behar dugu, sustatze-lana egingo duten enpresa eta ETE berriak erakartzen lagunduko duen ekosistema**, enpresa-sare indartsuagoa eta dibertsifikatuagoa sortuko duena, lankidetzaren publiko-pribatuaren eredu eredugarriarekin.

Berrikuntzak eta garapen teknologikoak gero eta garrantzi handiagoa izango dute. Azpiegiturak sortzeko egin beharreko inbertsio handiak erronka garrantzitsua du orain, baina zaila, enpresek, batez ere ETEek, teknologia xurgatzeko duten gaitasuna handitzea lortzeko. Modu irmoagoan heldu beharko diogu berrikuntza sozial eta teknologikoari, enpresen I+G eta izaera teknologikoko enpresa-proiektuak sustatuz. Hala, etorkizuneko teknologia berriei garrantzi handiagoa eman beharko zaie, sektore tradizionalagoetako etengabeko berrikuntza ahaztu gabe, hala nola iraunkortasunean, deskarbonizazioan, ekonomia zirkularrean, digitalizazioan...; bai eta shock eta krisi egoeretara egokitzeke gaitasuna garatu ere.

Gure beste erronketako bat da **ekosistema ekonomiko-enpresarialaren eraldaketa eta iraunkortasuna babestea**, eskala eta presentzia multilokala lortzeko. Enpresen dimentsio handiagoa lortu behar dugu, berritzeko, merkatuak garatzeko, modu iraunkorrean lehiatzeko eta nazioartean presentzia estrukturala izateko. Ahal izanez gero, enpresa egiteko eredu propio batekin egin behar da, non lehenengo balio partekatua alde guztientzat izango den. Enpresa-eredu berri horretan datza etorkizuneko gure oinarrietako bat, Herri gisa, lehiakortasunari zein nortasunari dagokienez.

Aldi berean, beharrezkoa da **enpresa-erabakiguneak Euskadin gera daitezela** lortzeko eta gune horiek indartzeko erronkari heldua. Horretarako, trakzio-erakunde historikoei eutsi beharko zaie, eta horrek aukera emango du horiei lotutako enpresa eta enplegu-sare osoa sostengatzeko, sortzen ari diren sektoreak identifikatzeko eta etorkizuneko sektoreetan presentzia sendoa garatzeko, Euskadin ditugun nitxo nagusiak indartuz eta gure enpresen merkatu berrietan nazioartekotzea modu estrukturalan babestuz. Bestalde, ibilbiderik ez duten eta etorkizun mugatua duten sektore helduen eraldaketa bultzatu behar dugu.

Hirugarrenik, **gure kultura eta balioak** finkatzen jarraitzeko erronkari heldu behar diogu; izan ere, iritsi garen tokira iristeko aukera eman digute, baina egungo arriskua da gero eta anitzagoa izango den gizartean difuminatzea. Saihestu egin behar duguna da gure ongizate-estatuan erosoegi sentitzea eta autokonplazentziaren kulturaren erortzea, bai eta gauzak bertan behera uztea ere, ekintzailtza, ahalegina, lanaren etika, errotzea eta konpromisoa galduz joan daitezten. Etxean eta eskolan, ahalegin, bikaintasun eta ekintzailtzaaren kultura bultzatu behar dugu, funtzionario izan nahi duten gazteen ehuneko handiegia baita Europako beste eskualde batzuekin alderatuta. Halaber, etorkizunean garrantzi handia izango duten balio berriak sustatu behar dira, hala nola jasangarritasuna eta ingurumenarekiko errespetua.

Euskal nortasunaren ezaugarri izan behar du **bizitza sozial eta ekonomikoaren eremu guztietan genero-berdintasunaren aldeko apustu sendoa egiteak**, emakumeak dagokion lekua izan dezan. Euskadik nazioartean erreferente izan nahi du. Gainera, emakumea lan-munduan gehiago integratzeak zenbait arlotan dugun talentu-defizita murrizten lagunduko luke.

Euskal gizarteak sentitu behar du berehala jarduteko premia, batez ere egungo pandemiak eragindako krisi-garai hauetan, **autokonplazentzia eta dena bermatutzat ematea saihestuz**. Lehiakortasun ekonomiko iraunkorra eta nazioartekoa lortzea funtsezkoa da azken hamarkadetan lortu dugun gizarte-ongizateari eta kohesioari eusteko eta indartzeko, eta, horretarako, ahalegin handiak egin ditugu Euskadi Europar lider izan dadin garapen orekatu horretan. Iraganeko arrakasta ez da berme nahikoa etorkizuneko ongizaterako, eta gizarte gisa asmo handiei eutsi behar diegu eta katarsi hori ematea lortu.

Azkenik, EAJ-PNVren aburuz, datozen urteetan sor daitezkeen beste batzuk alde batera utzi gabe, gure herrian potentzial eta etorkizun handiko hiru arlo ekonomiko daude garatzeko: industria adimenduna, energia eta ingurumena, gizarte eta osasuna.

Trantsizio digitala, industria adimendunerantz: Euskadiko garapen ekonomikoaren oinarria izan den industria-sektorearen barruan, manufaktura aurreratuaren eta industria adimendunaren aldeko apustua egin beharko dugu. Hau da, digitalizazioaren, robotikaren, adimen artifizialaren, big data eta data analyticsen, blockchainaren, material berrien (konpositeak, grafenoak, zuntz adimendunak, plastiko aurreratuak) aurrerapen guztiak txertatu beharko ditugu posizio garrantzitsua dugun sektoreetan. Kontua ez da azpisektore espezifikokoak hautatzea (makina-erreminta, automobilgintzako osagaia, aeronautikoa, etab.), baizik eta etorkizuneko teknologiak menderatzea eta horien balizko aplikazioak antzematea, eta, aldi berean, sektore horiek eta haien aplikazioek eskatzen dituzten zerbitzu aurreratuak indartzea. Digitalizazioa nahitaezkoa da.

Trantsizio energetikoa eta ingurumena: herritarrak ingurumen-gaietan kontzientziatzeak eta gobernuek trantsizio energetiko adimenduna, bidezkoa eta jasangarria lortzeko ahalegina egiteak esan nahi du arlo honek oso garapen garrantzitsua izango duela gure Herriarentzat hiru esparrutan: 1) energia berriztagarriak, batez ere eolikoa eta eguzki-energia, eta bektore berriak, hala nola hidrogeno berdea, gasa trantsizio-energia gisa eta isurketa garbiko erregaien garapena; 2) mugikortasun jasangarria emisio txikiagoekin, tren eta itsas garraioari, automobilgintzaren sektoreari eta sare elektrikoei eragiten diena; eta 3) ekonomia zirkularra, eraginkortasun energetikoa, hondakin inerte eta plastikoen balorizazio energetikoa eta abar barne hartzen dituena. Mundu berdea gure mundua izan behar da.

Trantsizio soziala eta sanitarioa: gizarte garatuetan eta, bereziki, Euskadin, adinekoen ehunekoa handitu egiten da, eta, horren ondorioz, bizitza eta zerbitzu-kalitatearen eskakizunak ere. Arlo horren barruan sektore ugari daude, eta horietan funtsezko presentzia garatu beharko genuke: a) ingeniari-tza biomedikoa; b) bioteknologia eta genetika; d) medikuntza eta farmazia espezializatua; eta e) elikadura osasungarria (elikagaien teknologia eta industria). Ekonomia bio berri bat pertsonen zaintza eta babes integralerako bizi-ziklo osoan.

Lehenengo bi arlo ekonomikoetan gaitasun produktibo eta zientifiko-teknologiko sendoak ditugu, baita merkatu zabala eta garatzeko eta dibertsifikatzeko aukerak ere. Hirugarren arloan gaitasun berriak ditugu, baina aukerak handiak dira eta merkatu-nitxo asko daude. Arlo horietan guztietan funtsezkoa izango da bermatzea balio eta harrapaketa-kate sendoak eta erresilienteak ditugula, batez ere herrialdearentzat estrategikoak diren gaietan.

Azkenik, lehiakorra izateaz gain, iraunkorra izango den eredu ekonomiko berri bat eraiki behar dugu. Europako gainerako herrialdeetan bezala, hamarkada honetan gaintu beharreko ingurumen-erronka handiei egin behar die aurre Euskadik. Aldaketa sakona behar dugu ekoizpen-, prestakuntza-, mugikortasun- eta gizarte-ohituren sistemetan, ingurunea erabat errespetatuz. EAJ-PNVn uste dugu Euskadik dituen hiru entitate administratiboek (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Agglomeration Pays Basque-Iparaldea) antzeko ekimenak abiatu behar dituztela helburu hori lortzeko.

Europako Batasunak **klimaren eta ingurumenaren** arloan dituen politikek, Euskadik jarraitzen eta kasu askotan alde aurretik aktibatu dituenek, onura handiak ekarri dituzte azken hamarkadetan. Europak, COP 21 delakoan edo Parisko Akordioan eta Garapen Jasangarriko Helburuetan adierazi bezala, arazo iraunkorrei aurre egin behar die hainbat arlotan, hala nola biodibertsitatearen galera, baliabideen erazketa eta erabilera, klima-aldaketaren inpaktua eta osasunerako eta ongizaterako ingurumen-arriskuak.

Europak adierazten digu iraunkortasun-defizitik larriena –erronkarik handiena– zor ekologikoa dela, baliabide naturalen gehiegizko erabilera eta horiek agortzeagatik handitzen dena, eta horrek mehatxu egiten dio etorkizuneko belaunaldiak planetaren mugen barruan dituzten beharrak asetzeko gaitasunari. Mundu osoan, funtsezko baliabideen gainean egiten den presioak, ur gezatik hasita lur emankorretaraino egiten denak, arriskuan jartzen du giza existentzia.

Euskadik bere politika guztietan eta ingurumenarekin lotutakoetan kokatu behar ditu Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuekin lerrokatutako xedeak eta ingurumen-aldagaiak hobetzen joateko aukera emango diguten adierazleak: ura, airea, klima-aldaketa, zarata, biodibertsitatea, baliabide materialak, hondakinak, lurzorua, ekonomia eta ingurumena, bai eta herritarrek ingurumenarekin eta ingurunearekin duten harremana ere.

Euskadirentzat epe ertain eta luzera begira ingurumenaren alorrean planteatzen diren erronkek bat egiten dute, ia erabat, Europako Batasunaren erronkekin. EAJ-PNVk Estrategia berde berri baten beharra partekatzen du, baina, batez ere, ekonomia modernoan oinarritutako hazkunde-estrategia berri bat, baliabideen erabilera eraginkorra eta lehiakorra. Apustu hori izan behar da etorkizuneko gure ekintzen funtsa, gure Basque Green Deal izeneko.

Industria, ekonomiaren hazkundera, energia berria eta klima-aldaketara moldatzea izango dira hazkunde iraunkorra eta bidezkoa lortzeko motorrak, inor atzean utziko ez duena. Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konferentziak (COP26), Glasgow hirian 2021eko azaroan egin zenak, Parisko Akordioa berretsi du, bai eta herrialdeek emisioak murrizteko egin nahi duten ahaleginean anbizio handiagokoak izan behar dutela ere, eta hori nahikoa izango ote den berotze globala 1,5^o C-ra mugatzeko edo, gutxienez, 2^o C-tik behera uzteko. Era berean, Gizarte Eskubideen Europako Zutabea argi, koordinatuta eta asmo handiz aplikatuz gero, Europar Batasunak Nazio Batuen 2030 Agendarekin eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuekin duen konpromisoa hobetuko da, bai eta Europako Itun Berdea aplikatzea ere.

Garapen iraunkorrerako **2030 Agendaren**, Parisko Akordioaren eta Europako Itun Berdearen helburuek eta legegintza-garapen berri kontaezinak premiazko jarduera eskatzen dute datozen 10 urteetan maila guztietan. Zehazki, Europako Itun Berdearen helburu nagusia Europar Batasunaren hazkunde ekonomikoaren eta ongizatearen eredia jasangarriago eta lehiakorrago bihurtzea da. Hazkunde ekonomikorako eta epe labur, ertain eta luzean lehiakortasuna bultzatzeko estrategia berria da.

Europako Itun Berdeak ekoizpen, banaketa eta kontsumo-ereduaren iraultza planteatzen du, ekonomiaren ia sektore guztiak hartzen dituena. Iraultza hori energia garbiago baten bidez gauzatzen da (berotegi-efektuko gasen emisiorik gabe), materialen eta energiaren erabilera eraginkortasun handiagoa lortuz eta teknologia digital berriak garatuz eta ezarriz.

Euskadi Europako eremu aktiboenetako bat da trantsizio klimatikoan, eta zero isurpeneko etorkizun erresilientea lortzeko egokitze eta arintze-ahaleginen buru diren eskualdeen multzoan dago. Beraz, berebiziko garrantzia duen eta Euskal Herritik aprobetxatu behar ditugun aukera handien garaian gaude.

EAJ-PNVren aldetik berresten dugu **gure ingurumenarekin** eta planetako ingurumenaren **hobekuntzarekin bateragarria eta errespetuzkoa den ekonomia** bat bultzatzeko konpromisoa. Hori guztiz egingarria da. Erakutsi dugu egin daitekeela. Euskadi ekonomikoki hazi eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztu daitezkeela erakusten duen adibidea da. Hala, 2005. urteaz geroztik, isurketak %26 murriztu dira, eta BPGa, berriz, %17. Horrek dakar ekonomiaren desakoplamendua izenez ezagutzen dena, hau da, hazkunde ekonomikoa eta materialen kontsumoa bereiztea. 2000. eta 2016. urteen artean, euskal ekonomia %26 hazi zen; materialen kontsumoa, berriz, %25 murriztu zen, eta zabortegean amaitzen den hiri-hondakinen bolumena, berriz, %56 murriztu zen.

Etorkizunera begira, egungo ekonomia lineala, gero eta kontsumo handiagoan oinarritutakoa (erauztea, ekoiztea, kontsumitzea eta botatzea), ekonomia zirkular batekin ordeztu behar da, hondakinetan dauden baliabideen berrerabilpenean oinarritua; eremu horretan gero eta lan-aukera gehiago daude.

Mundua abiadura handian aldatzen da. Laugarren industria-iraultza da, eta jauzi kualitatiboa dakar garapen teknologikoan, baita hazkunde ekonomikoaren eta baliabide materialen kontsumoaren arteko desakoplamenduaren beharra ere. EAJ-PNVren ustez, horrek aukerak emango ditu negozio eredu berriak eta kalitatezko enpleguak sortzeko.

Testuinguru horretan, Europako Itun Berdeak eta COVID-19aren osteko Berreskuratze Estrategiak atea irekitzen diote Euskadiko Espezializazio Adimendunaren Estrategia (RIS3) birdefinitzeari; izan ere, estrategia horrek iraunkortasunaren kontzeptua integratzen du, eta “espezializazio adimendunaren eta iraunkorraren” berrikuntza-estrategia (RIS4) bihurtzen du.

ELKARREKIN BIZI

Eta garrantzia txikiagokoa den zerbait: Euskadiren kohesioa, kohesio soziala, eraldatzen ari den kohesioa, eta aurre egin beharko dizkiogun erronka guztiak, azken 100 urteetako osasun-krisi garrantzitsuenaren (COVID-19aren pandemia) ondorioak gainditzetik hasita.

Azken hamarkada hauetan, Euskadik ongizate aurreratu batetarako bidea egin du, eta horrek ahalbidetu dio gure Herriari, XXI. mendearen lehen zati honetan, Giza Garapen Iraunkorraren indizearen abangoardian kokatzea mendebaldeko herrialdeen artean. EAJ-PNVk, bere ekintza politikoaren ikuspegi humanista sakon batetik, **Euskadiren eraikuntza sozialera** eta Herriaren kohesio sozialera bideratutako politiken multzo integrala defendatu eta sustatu du beti, esparru instituzional eta politiko guztietatik. Ekintza politiko horri esker, esparru pribatuko eragile sozial, ekonomiko eta kultural ugarirekin lankidetzan, Europan erreferente den ongizate-eredu bat izan dugu.

Gizarte-kohesioa gizarte-ongizateko sistema on baten emaitza da, eta horren ondorio dira, batez ere, desberdintasunak murriztea, inklusioa eta aukera-berdintasuna sustatzea eta herritar guztiei enplegua, hezkuntza, osasun-zerbitzuak, kultura-ondasunak eskuratzeko aukera bermatzea helburu duten politikak eta adierazleak; eta, aldi berean, pertsonen sortutako kapital sozialaren emaitza da, baita gizartean duten partaidetzarena eta espazio formal eta informaletan duten elkarreaginarena ere.

Gizarte batek bere burua zaintzeko gai izatea, bere herritarrak ondo zainduko dituela ziurtatzea, modernotzat, aurreratutzat eta kohesionatutzat jotzeko irizpidea izan beharko litzateke.

Gure jendea zaintzeko, lehenik eta behin, **osasuna sustatzen dela** bermatu behar dugu. Horretarako, garrantzitsua da gure osasun sistema publiko unibertsalari eustea aldarrikatzea, bai eta bere garapena ere, herritargoari osasun arreta bermatuz, sendagarriak bermatuz, bai eta ekitatea eta informazioa ere. EAJ-PNVren osasun politikaren oinarriak dira ongizate estatuaren solidariotasun printzipioak. Gure politika osasun-sistema integral baten printzipioekin konprometituta dago, zerbitzu publiko unibertsal eta ekitatibo gisa ulertuta. Hala ere, Euskadiko lurralde bakoitzean osasun-aseguramenduko eta hornikuntzako jarduera pribatuak duen zeregin garrantzitsuaz ere jabetzen gara, eta uste dugu jarduera horrek euskal osasun-sisteman eskuragarri dauden baliabideak gehitzea eta lankidetzaren publiko-pribaturako aukera ona dakarrela.

Azken 50 urteetan, Euskadiko osasun-sistemak (herrialde guztietan) garapen handia ezagutu du alderdi teknologikoan eta zerbitzuari dagokionez, eta euskal herritarrek ondo baloratzen duten osasun-sistema sendoa finkatzea lortu du. Gaur egun, euskal osasun-sistemak autonomia handia du osasun publikoa kudeatzeko eta laguntza-zerbitzuak emateko, eta giza baliabide eta teknologiko zabalak ditu.

Euskadiko eremu komunitarioko osasun-emaizak nabarmen hobetu dira urte hauetan guztietan, eta adierazle askoren bidez ikus daitezke, besteak beste, diagnostikorako eta tratamendurako irisgarritasuna, bizi-itxaropenaren hazkundera, hainbat patologiatako heriotza-tasa eta abar. Era berean, oso garrantzitsuak dira biztanleriaren baheketak ezartzea eta biztanleriaren osasuna nabarmen areagotu duten txertaketa-programak.

Laburbilduz, euskal gizartea gai izan da izaera unibertsaleko osasun-sistema bat garatzeko, eta, sistema horri eusteko eta etorkizunean garatzeko, gizarte-eragileek partekatutako konpromiso politikoa behar izan du. Ildo horretan, osasun-sektoreari buruzko kezka garrantzitsuenetako bat, zalantzarik gabe, iraunkortasun ekonomikoa da, bai eta beharrezko indartzea ere. Inork ez du zalantzan jartzen osasun-sektoreak, gauza guztien gaineratik, eraginkorra izan behar duela, baina etorkizunean jasagarria izateko, ezinbestekoa da politikak aplikatzea eta baliabideak modu eraginkorragoan kudeatzea, ezagutzan eta ebidentzia zientifikoetan oinarrituta. Beste ahalegin bat egin beharko dugu, lortutakoa ez galtzeko ez ezik, gero eta konplexuagoa den mundu-testuinguru honetan sortzen ari diren erronka eta aukera berriei aurre egiteko ere. Aurrean ditugun erronketako batzuk honako hauek dira:

EAJ-PNVren aldetik **osasun publikoarekin dugun konpromisoa berrituko dugu**, eta, beraz, ingurumen-osasunean, elikadura-osasunean, lan-osasunean eta pertsonen osasunean eragina duten bestelako baldintzatzaileetan beharrezkoak diren inbertsioak eta baliabideak indartzea bultzatuko dugu, hori guztia Garapen Iraunkorrerako Helburuen ildotik. Datorren munduan, ezinbestekotzat jotzen dugu osasun-jarduera eta jarduera soziosanitarioa digitalizatzeko sistemak garatzeko baliabideak eta inbertsioak areagotzea, herritarren osasunaren kudeaketan ahalik eta kalitate handiena lortzeko.

Lehen arretak, euskal osasun-sisteman sartzeko benetako ateak, birformulazioa, arreta-paradigma berri bat eta giza baliabideen eta baliabide teknologikoen gehikuntza eskatzen ditu. Eredu berri horrek osasun-langileentzako autonomia handiagoa eta erantzukizun-eskuordetza handiagoa izan behar du.

Osasun arloko baliabide kopurua handitu beharra herritarren arreta-premietan eman den hazkundera eragindako errealitatea da, baina, horrekin batera, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa, modernoagoa eta sendoagoa izateko programak egin behar dira, baita lankidetzat publiko-pribatutik ere. Horretarako, egiturek eta osasun-jarduerak beren kudeaketa-sistemak eta asistentzia-praktika garatu eta profesionalizatu behar dituzte osasun-emaizta onenak lortzeko, eta emaizta horiek balioa eman behar diote pertsonen osasunari.

Osasunaren etorkizunak osasunaren sektore ekonomiko-industrialak bultzatzea eskatzen digu, produktuen eta zerbitzuen garapenarekin. Garapen horrek enpresen, unibertsitateen, zentro teknologikoen eta Euskal Osasun Sistemaren arteko koordinazioa eskatzen du (bere osotasunean), eta azken horrek zeregin garrantzitsua du osasunaren sektore industrialak garatzeko.

XXI. mendeko Euskadi zahartzen ari da eta biztanleria galtzen ari da. Dagoeneko gehiago dira 65 urte baino gehiago dituzten euskaldunak 19 urtetik beherakoak baino, eta biztanleria hori murriztu egiten da. XX. mendean 6 hilabeteko bizi-itxaropena irabazi dugu urtean, eta gure historian lehen aldian da aldi berean horrenbesteko belaunaldi aldi berean bizi garela. Aldi berean, belaunaldien arteko distantzia gero eta handiagoa da eta gero eta zailago egiten ari da batzuen eta besteen interes desberdin eta dibergenteak bateragarri egitea.

Euskadirentzat etorkizuneko proiektu bat planteatzerakoan, erronka demografikoak izaera estrategikoa du. Gure gizartearen bideragarritasunerako erronka garrantzitsuenetako bat da. Euskadiko eta Estatuko datuek balantze demografiko okerrera duten Europar Batasuneko herrialdeen artean kokatzen gaituzte. Pandemiak egoera hori larriagotu du. 2020an 14.721 haur jaiotzen ziren Euskadin, 2019an baino 697 gutxiago eta 2008an baino 6.000 gutxiago. 1941az geroztik izandako jaiotzen kopururik txikiena da.

Errealitate demografiko horrek eragin zuzena sortzen du epe labur eta ertainean hainbat arlotan, hala nola hezkuntzan –sei ikasturtetan 11.000 matrikula galdu dira Euskadin, jaiotza-tasak behera egin duelako–; lan-merkatuak behar duen langileriarri dagokionez –20 urtean lanerako adinean dagoen biztanleria 92.000 pertsonatan murriztu da–; edo gizarte-politiken iraunkortasunean –2050ean, mendeko biztanleria guztizkoaren erdia izan daiteke ia–.

Euskadiko gazteen batez besteko emantzipazio-adina 30,2 urtekoa da. Europako batez bestekoa baino lau urte berantiarra da. Gazteek emantzipatzeko duten zailtasun hori funtsezko faktoreetako bat da jaiotza eta ugalkortasun-tasak txikiak izaten jarraitzeko eta EAEko emakumeek lehen seme-alaba izateko adina atzeratzeko –Euskadin, 32,63 urterekin, eta Europako batez bestekoa, berriz, 29,2rekin–.

Erronka demografikoari erantzutea lehentasuna da, eta, batez ere, gazteriarekiko eta bizitza-proiektu autonomo bat eraikitze eskubidearekiko konpromisoan islatzen da. EAJ-PNVren helburua da baldintzak sortzea euskal gazteak atzerapenik gabe emantzipatu ahal izateko, baldintza materialik ezak eragindako atzerapenik gabe, beren familia-proiektuak eraiki ahal izateko eta nahi dituzten seme-alabak beraiek nahi dutenean izateko.

Gazteen emantzipazioa eta familia-proiektuen eraikuntza dira ardatz nagusiak. Hala ere, EAJ-PNVk bultzatzen duen erronka demografikoari erantzuteko estrategia integralak adinekoen bizitza autonomoa eta osoa sustatzea ere badakar; migrazioaren eremuan harrera eta inklusio eredu propioa izatea, eta landa-ingurunearen despopulazio eta zahartzeari aurre egiteko politikei laguntza aktiboa ematea, zerbitzu eta proiektu erakargarri, bideragarri eta iraunkorren bidez balioa handitzera bideratuta.

Belaunaldien arteko ituna –idatzi gabeko arau hori zeinaren bidez ulertzen baita adin nagusiek gazteak zainduko dituztela, pentsatuz (denborarekin disoziatutako elkarrekotasun) gaurko haurrak nagusiak direnean lehengoak zainduko dituztela– tentsionatu egin da hainbat arrazoiengatik, hauen artean demografikoak (biztanleria transformatu egin da: nagusi gehiago eta askotarikoak, jaiotze tasaren beherakada, zaintzaile potentzialaren gutxitzea...), sozioekonomikoak (belaunaldi gazteek beren gurasoek baino soldata baxuagoak dituzte, nagusien pentsioak gazteen soldatak baino altuagoak dira, bai eta baldintza hobek ere, beraiek zerga bidez ordaintzen dituztenak), globalizazioak ekarri dituenak (familiako kideen arteko distantzia geografiko handiagoa, zainketak zailago egiten edo eragozten dituztenak eta desafekzioa eragiten dutenak...), bizitza idealaren eta errearen arteko disonantziatik datozenak (gazteek uste dute ezin dituztela beren bizi baldintzak hobetu, eta horrek alienazioa dakar); denboraren erabilera eman diren aldaketak (lan bizitzak erabat kolonizatutako familia bizitza, lanari harremani baino denbora gehiago ematen baitiogu); aldaketa ideologikoak eta baloreen aldaketa (insegurtasun handiagoa, konfiantzarik eza etorkizunean, konpromiso eta inplikaziorik eza gazterien zati baten aldetik...) eta zahartze ereduaren eman diren aldaketak (zahartze aktiboa, adinekoek gizarteari egiten dioten ekarpenaren ideia eta gizartean duten rola eraldatu izana).

Horrek denak eragiten die gizarte honek sortu dituen askotariko mekanismoek: pentsioak, osasun zerbitzuak, elkarbizitza, hezkuntza, ondarearen transmisioa, eta abar.

Errealitate berri horien aurrean, EAJ-PNVren aldetik uste dugu **beharrezkoa dela belaunaldien arteko itun berri bat sustatzea**. Zahartzaroz eta erretiroaz ulertzen dugunaren paradigma berria, gutxienez, jorratuko duen ituna; eta, horri lotuta, belaunaldien arteko harreman-ereduak, zaintzaren munduari buruzko ikuspegi berria, jaiotzarako eta familietarako esparru egokia, lan-munduan eta enpresan egin beharreko aldaketak, edo hiri-eremuan eta etxebizitza-eremuan eman behar direnak.

EAJ-PNVrentzat nahitaezkoa da pertsonak beren bizi-proiektuaren arabera eduki nahi dituzten seme-alabak izatea, eta beste barne-faktore batzuek (etorkizun pertsonalari eta seme-alaben etorkizunari buruzko itxaropenak, gai sentitzea) edo kanpo-faktoreek (etxebizitza lortzea, enplegu egonkorra, seme-alabak zaintzeko laguntza formala edo lehen mailakoa) ez eragozteko edo atzeratzea. Jaiotza-tasaren sustapena familiei, batez ere familia gazteei, laguntzeko politika integral baten ondorioa da.

Azken hamarkada hauetan, Europako beste herrialde batzuek ere erronka horri aurre egin behar izan diote, eta, beraz, jardunbide egokietatik, ondo egindakotik eta akatsetatik ikasi beharko dugu, jaiotza-tasak berreskuratzeko aukera emango diguten politikak eta programak ezartzeko, eta, ondorioz, baita Euskadiko ugalketa eta gaztete-tasa ere. EAJ-PNVren aldetik Estrategia integral bat garatzea proposatzen dugu, seme-alabak dituzten bikote gazteak etxebizitza eskuratzeko politiketan modu positiboan diskriminatuko dituen; beren ardurapeko seme-alaba bakoitzeko prestazio ekonomikoak eskainiko dituen, egungo edo etorkizuneko onura fiskalekin bateragarriak izango direnak; gazteen lan-egonkortasuna eta kalitatezko enplegua sustatuko dituen; bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko neurriak indartuko dituen; edo lan-arloan ere haurrentzako zaintza formaleko alternatibak eta espazioak eskainiko dituen.

Euskal gizarteak, Europako hegoaldeko beste herrialde batzuetakoak bezala, **familia-laguntza garrantzitsua** eta elkartasuna bideratzen duen, gizarte-kohesioa errazten duen eta, historikoki, ingurumen-arloko krisi eta gizarte-larrialdiko egoerei aurre egiteko aukera eman digun **komunitate-sare bizia** ditu ezaugarri. Familiaren babesa eta gizarte-sare dinamikoa gure balioen adierazgarri dira, eta erakundeok aintzat hartu eta zaindu egin behar ditugu. EAJ-PNVren aldetik planteatzen dugun ongizate eredia Europako iparraldeko herrialdeekin homologatu behar da babes mailari dagokionez, familien ekarpen soziala, elkarrekiko laguntza eta gizarte antolatuen kontzeptua galdu gabe, betiere.

Bestalde, bizi-itxaropenaren hazkundeak, gizarte moderno guztiek gizarte-aurrerapen handi gisa lortu nahi duten helburuak, prebalentzia handia dakar gaixotasun kronikoak dituzten pazienteen artean, eta, gainera, horien arretarako plangintza espezifikoak eskatzen du, eta horrek baliabide soziosanitarioekin partekatutako koordinazio eta estrategia egokira behartzen gaitu. Koordinazio horrek aldaketa bat eragin beharko du adinekoen arretaren paradigman.

Gure **osasun-sistema eta sistema soziosanitarioa** egokitu egin beharko dira Euskadin jada zabalitzen ari den errealitate horretara. Premiazkoa izango da arreta soziosanitarioa antolatzea pertsonaren osasun-beharren inguruan, gaixotasunen eta espezialitate medikoen inguruan antolatu beharrean. Era berean, langile talde integratuak beharko dira, klinikoak zein ez-klinikoak, erabiltzaile bakoitzari laguntzeko, orientazio eta aliantza aktiboen bidez: aholkularitza eta hezkuntza emanez, jarraibideak betetzea sustatuz eta jokabide osasungarriak lagunduz.

Eskura dagoen ebidentzia zientifikoaren arabera osasunerako onura gutxi dakarten praktikak, tratamenduak edo teknologiak berrikusi edo ezabatu egin beharko dira. Eta arreta komunitarioa eta soziosanitarioa bultzatu beharko da, bai eta diziplina anitzeko taldeen bidez emandako arreta integratua ere, antolaketaren barruko eta antolaketaren arteko koordinazioa bilatuz, epe luzera farmazia-sorospena, asistentzia espezializatua eta asistentzia ambulatorioa gutxitzen lagunduko duena.

Hau da, gobernantza **soziosanitarioko eredu integral bat ezartzea**, non erakundeen eta eragileen erantzukizun partekatuek definituta geratuko diren, premia soziosanitarioak dituzten pertsona guztiei arreta emateko betebeharra egon dadin. Politikak askoz ere zeharkakoagoak diren prozesu batzuetatik planteatu beharko dira. Ereduak herritarrei erantzun behar badie, ezin izango gara geratu alde bakar bati arreta ematen dioten sektoreetan; sektore eta politika guztiak horretara bideratu beharko dira. Horretarako, beharrezkoa da gobernantza konplexu bati egokitutako finantzaketa-ereduak ezartzea.

Gure etorkizunerako berriz pentsatu behar dugun beste arloetako bat **zainketena** da. Gizarte batek bere burua zaintzeko gai izatea, bere herritarrak ondo zainduko dituela ziurtatzea, modernotzat, aurreratutzat eta kohesionatutzat jotzeko irizpidea izan beharko litzateke.

Zaintza-gizarte hori ez da betebeharrak gisa planteatu behar, baizik eta beste maila batean kokatutako gizarte osasungarri bihurtzeko aukera gisa, komunitate-konpromisoan oinarrituta, guztiok gizarte horren parte sentitzea ahalbidetzen duen gizarte-kohesio batetik. EAJ-PNVren ustez, beharrezkoa da zaintzaren ideia indartzea, ez bakarrik familia-ingurunearen erantzukizun gisa, baizik eta gizarte osoak partekatzen duen erantzukizun gisa, eta, beraz, premiei erantzungo dien eta zaintzak erdigunean kokatuko dituen zaintza-sistema publiko bat eskatzen duena.

Alde horretatik, Euskadin familia-ingurunekeo zainzaileei laguntzea bultzatu dugu, baina familiartekoei (emakume zainzaileei, funtsean) laguntzea, zainketa-lanak bere gain hartzen jarrai dezaten, amaitzen ari da. Zainzaileen belaunaldi berriekin egiten dugu topo, zainzailearen harremanei eta eginkizunari buruzko begirada desberdinekin. Alde batetik, zainzaile askok ez diote zainzaile izateari utzi nahi, baina beste era batera izan nahi dute; eta, aldi berean, zaindutako pertsonak ere ez dituzte modu berean zaindu nahi; aitzitik, ziurrenik nahiago dute zaintza informala (afektibitatean zentratzen dutena) eta zaintza profesionalizatuak konbinatu.

Desgaitasun, mendetasun eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen laguntza jarraituak eta hainbat eremutan behar dituztenean, arreta sistemak eta gailuak egokitu eta antolatu egin behar dira, laguntza horiek batera eta koordinatuta jaso daitezten.

Iraupen luzeko zainketek integrazioa eskatzen dute (soziala, pertsonala, sanitarioa), baita egiturak integratuta ez badaude ere, bai eta pertsona bakoitzak bere gain har ditzakeen roletan (pazientea, erabiltzailea, egoiliarra, etab.) eskatzen dituen arretaren, zerbitzuen eta zainketen plangintza ere, hainbat egitura eta asistentzia-mailaren bidez.

EAJ-PNVren apustua da pertsonak ibilbidearen fase guztietan artatzea, pertsonak bere bizitzan zehar asistentzia-continuum bat izatea, eta behar besteko malgutasunez egokitzea pertsonaren testuinguruetara: etxean, egoitzan, hirian edo landa-ingurunean.

Zainketa-eredu horrek ikuspegi globala izan behar du, denboran aldakorrek diren beharrak hautematean eta ebaluatzean oinarritua, eta baliabideen etengabeko ebaluazioa eta egokitzapena eskatzen ditu. Zaintza-lan hori erraztuko duen antolakuntza bat izan behar du, eta egitura-ikuspegia eta profesionalak ere aldatu behar ditu. Arreta jarri behar du, sendatzean eta zaintzean ez ezik, prebenitzean eta birgaitzean ere, eta, azkenean, arintzean. Laburbilduz, pertsona bihurtu behar da arreta-prozesu osoaren motore, erabakiak hartzeko eta bere bizitzaren kontrolari eusteko, autonomia zainduz.

Bizikidetzan eta gizarte-kohesioan rol erabakigarria dute **gizarteratze eta berdintasun-politikek**, bai eta aniztasuna integratzeko gaitasunak ere.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egindako apustua, desberdintasuna eta pobrezia desagerrarazteko helburua duen gizarte inklusiboa, EAJ-PNVk Euskadiren eraikuntza sozialean aurrera egiteko bultzatutako politika humanista eta solidarioen parte izan da.

Azken urteotan urrats asko eman dira ildo horretan aurrera egiteko. Gaur EAJ-PNVk berdintasunaren eta gizarteratzearen aldeko gobernantzaren aldeko gure borondate politikoa berresten dugu. Erakunde publikoek eta gizarte zibilak berdintasunaren eta inklusioaren aldeko politikak blindatzearen aldeko apustua egin behar dute, eta, horren ondorioz, genero-ikuspegia txertatu behar da osasunean, hezkuntzan, ekonomian, enpleguan, kulturen, gizarte-zerbitzuetan, segurtasunean, hirigintzan eta emakumeen eta gizonen bizitzetan nolabaiteko eragina duten eremu guztietan. Horrek esan nahi du berdintasun-egiturak indartzearen eta berdintasuna eta gizarteratzea bultzatzera bideratutako aurrekontuak handitzearen alde egitea.

Azken batean, emakumeen ahalduntzearen aldeko apustu irmoa da, eta horrek esan nahi du emakumeen garapen indibidual eta kolektiboan laguntzea, genero-kontzientzia eta autonomia sustatuz, eta, era berean, emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa laguntzea, berdintasunean oinarrituta.

Urrats berriak emateko, nahitaezkoa da ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzea. Gaur egungo eredu sozioekonomikoari buruzko eztabaida publikoa bultzatu behar da, eta, horretarako, zenbait gai agerian utzi behar dira, hala nola Euskadiko emakumeen enpleguaren prekarietate handiagoa eta pobrezia feminizazioa, soldata-arrakala edo zainketa-lanen naturalizazioa emakumeen inguruan. Beharrezkoa da antolaketa eta enpresa-kultura berdintasunarekin lerrotzea eta berdintasunean oinarritutako hezkuntzan eragitea, besteak beste, genero estereotipoek eta sinesmen faltsuek ezarritako lan-segregazioa saihesteko. Beharrezkoa da enpresetan berdintasun-planak bultzatzea, segregazio bertikalari eta kristalezko sabaiei aurre egiteko eta gizartearen talentu guztia aprobetxatzeko, besteak beste.

Zainketen antolaketa sozial berri bati laguntzeak lana modu orekatuan banatzea dakar; gizonen zaintzarekin eta etxeko lanekin duten erantzukidetasunean; enplegu-egiturak lan-bizitza pertsonalaren eta familia-bizitzaren beharretara egokitzean; eta zerbitzu sozio-komunitarioen egokitzapenean...

Ezin dugu etsi indarkeria matxistarik gabeko gizarte bat lortzeko ahaleginean: premiazkoa da berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako herri-politika eta herri-itun bat bultzatzea, betiere emakumeen aurkako indarkeria genero-desberdintasunaren adierazpen nagusi gisa eta berdintasuna desagerrarazteko bide gisa hartuta. Beharrezkoa da arreta eta segurtasuna hobetzearen aldeko apustua egitea (erakundeen arteko koordinazioa bultzatuz eta biktimak artatzen dituzten profesionalen prestakuntza sustatuz, besteak beste), eta ezinbestekoa da prebentzioaren aldeko

apustua egitea, bereziki belaunaldi gazteenetan eta ikasgeletako hezkidetzak funtsezko tresna gisa hartuta, bai eta gizonekin ere (berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka sentibilizatutako eta konprometitutako gizonen kopurua handitzea, emakumeen arteko beste komunikazio-eredu batzuk eta konpromiso sozializatzailea saihesteko).

Sustatu beharreko ekintzak dira prestakuntza-politikak eta berdintasunean hezteak, ikasgeletan hezkidetzak ezarri, edo familietan berdintasun-balioak transmititu, tresnak eta jarraitu beharreko ereduak emanez eta sentibilizazioa sustatuz. Gizartean eta gizarteak osatzen duten pertsonen subkontzientean hain errotuta dauden balioak aldatzea zaila bada ere, ezin dugu ahaztu etengabe aldatzen ari den gizarte batean bizi garela, eta belaunaldi berri bakoitza berdintasunerako aukera berri bat dela. Ez dugu ahaztu behar belaunaldi berriak gure begira daudela etengabe.

Gizarteratzearen eztabaidari ekiteak enpleguaz hitz egitera ere behartzen gaitu. Enplegua izan da urte askoan gizarteratzearen paradigmaren elementu nagusia. Enpleguak estatus bat ematen dio pertsonari, leku bat gizartean, emantzipaziorako eta autonomiarako beharrezko diru-sarrerak, identitate bat ere ematen du. Azken urteotan, enplegarritasunaren paradigmak pertsonaren gizarteratzea bermatzeko estrategiak bultzatu ditu, prestakuntzaren eta ibilbide pertsonalizatuaren diseinuaren bidez. EAJ-PNVren ustez, **kalitatezko enplegu egonkorra** lortzea da errealitate horretatik bertatik lortu beharreko lehentasunezko helburua.

Hala ere, inoiz baino beharrezkoagoa da etorkizuneko lan-gizarteari buruzko hausnarketa egitea. Enplegua eta enplegarritasuna ahultzeko joera globalek (prekarizazioa, azpi-enplegua, partzialtasuna...) zalantza jarri dute enplegua pertsona integrazteko eta sustatzeko gizarte-egitate nagusi gisa. Enplegu ahul bati dagokionez, zaila da gizarte indartsu eta kohesionatu bati eustea; beraz, enplegua paradigma horretatik aurrerapuzatzen zaion erreferentzialtasunaren zati bat galtzen ari da.

Enplegua, beraz, dagoeneko ez da sektore bakarra pertsonen gizarteratze-ibilbidea eta partaidetza soziala diseinatzeko, ezta diru-sarrerak bermatzeko ere, eta ez zaio inori bere herritartasun-estatusaren zati nagusia ematen, orain arte gertatu den bezala. Beharrezkoa da gogoeta egitea enpleguak gure gizartean duen eta etorkizunean izango duen eginkizunari buruz, kalitatezko enplegu-politikak sustatuz, eta, aldi berean, gizarteratzeko ibilbideak sustatuz enplegarritasunaren paradigma osatuko duten beste politika mota batzuekin.

Begirada pertsonarengan zentratzeak prestazio sakabanatu eta baldintzatuen ikuspegia aldatzea ere ekarri behar du, lehenik eta behin, pertsona oro gizarte-egituran integrazteko oinarritzko elementua bermatzeko: **etxebizitza**. Argi eduki behar da etxebizitza-politikak zentraltasuna izan behar duela, eta ardatza izan behar duela zeinaren inguruan egon beharko diren pertsonak gizarte-egituran integrazten laguntzen duten gainerako elementuak.

Euskal gizartean, etxebizitzaren jabetzak tradizio zabala du. Etxebizitzaren prezioaren garestitasuna 2008ko krisiak moteldu zuen konstante bat izan da, baina herri eta hiri gehienetan gora egin du berriro, merkatuan dagoen eskaintza eskasagatik. Testuinguru horretan, abiapuntu gisa, etxebizitza bat (edo etxebizitza hori eskuratzeko laguntza) eskuratu ahal duenak abantaila handia dauka gizarte-egituran.

EAJ-PNVrentzat Etxebizitza-politikak, beraz, desberdintasunaren aurkako borrokaren ardatz izan behar du, norabide bikoitzean. Alde batetik, gazteei emantzipazio-prozesuak erraztuz, alokairu sozialaren aldeko apustu garbia eginez. Bestetik, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen etxebizitza bat eskuratzeko aukera ematea. Hori da gizarteratze aktiboa ahalbidetzeko lehen urratsa. Eta enplegu-politiken eta diru-sarrerak bermatzeko politiken beharrezko osagarria, horiek baitira, batera, gizarteratzeko prozesuak bermatzeko ezinbesteko elementuak, aurrez deskribatutako gakoetan norberaren garapena ahalbidetuko dutenak.

Prestazio ekonomikoek, hala nola **Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak** (DSBE), balio integratzaile handia dute, gizarte-narriatze prozesuak eta familien autonomia-galera saihesten laguntzen baitute. Hala eta guztiz ere, prestazio horien pertzepzioak hartzaileen kronikotasunarekin edo pasibotasunarekin lotutako sinesmenei lotuta jarraitzen du. Beraz, garrantzitsua da prestazio ekonomikoaren eta haien ahalmen inklusiboaren eraginkortasun-mezua zabaltzea. Horrez gain, garrantzitsua da Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera estatuan onartzearen ondoriozko egoera aprobetxatzea, izan nahi dugun diru-sarrerak bermatzeko sistemari buruzko hausnarketa egiteko, estaldura bera arrisku sozial berriko egoeran dauden pertsonetara zabalduz.

Aniztasuna kudeatzea **etorkinak integratzeko** dugun gaitasuna aktibatzea ere bada. Euskadiko azken hamarkadetakoa migrazio-prozesuen azterketak erakusten duenez, gure herrira iritsi diren etorkinen kopuruak gora egin du. 2011-2013 aldian atzemandako geldialdia izan ezik, aurreko krisi ekonomiko-finantzarioaren eragin geratuaren ondorioa baita, hazkunde ekonomiko minimoa ikusi bezain laster immigrazioa aurreko urtean baino askoz ere zifra handiagoetan hazi da, aztertu den azken urtera arte. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, hemen jaiotako pertsonen eta nazionalizatutako pertsonen kopuruak gora egin du, eskubide osoko herritarrak dira eta, beraz, botoa emateko eskubidea dutenak. Hau da, Euskadin behin betiko bizilekua ezarriko duten biztanleak dira gehienak.

Egun ezagutzen ari garen immigrazioaren fenomenoak ez da koiunturala, eta, beraz, EAJ-PNVk Euskadirentzako immigrazioaren kudeaketa-eredu propioa izan beharko litzatekeenaren oinarriak bultzatu behar ditu, errealitate saihestezin horri aurre egitea ahalbidetuko diguten lan, hezkuntza, kultura eta lege-politikak sustatuz.

Euskadin bizi den jatorri atzerritarreko biztanleria %10-12 inguru da, herrialdeen arabera, eta datozen urteetan hazten joango da. Atzerritar jatorriko biztanleen migrazio-stocketan (immigrazioak-emigrazioak) emango diren gorabeherak euskal klase ertainaren indar ekonomikoaren arabera izango dira. Zenbat eta sendotasun handiagoa, orduan eta biztanle gehiago, eta alderantziz.

Euskal immigrazio-eredua inplizitua eta alde aurrekoa da. Eredua XXI. mende honen hasieratik landu da. Erreklamatzeko duenak eta hartzen duenak aukeratzen duela aintzat harturik, euskal kasuan, immigrazio-eredu inplizitu hori, gizarteak erakundeek baino gehiago diseinatzen duena, feminizatua eta latinoamerikarra da. Iritsitako biztanleen %30 emakumeak eta latinoamerikarrak dira. Ildo horretan, irtenbiderik errealistena izango litzateke Euskadin funtzionatzen duen eredu inplizitua zein den aztertzea, eta, hortik, dimentsio nuklearrak birbideratzea, etorkizunari eta gizarte kohesionatuari begira. Horrez gain, migrazio-politika proaktiboa identifikatu eta diseinatu beharko litzateke, gure sare ekonomikoak jarduera espezializatu askotan duen profesional-defizitari erantzuteko gai izango dena. Atzerrian bizi diren euskal profesionalak berreskuratzea, hau da, emigratutako euskal talentua aberriatzea, kualifikazio handiko etorkinak erakartzea, edo euskal diasporarekin lankidetzan aritzea dira etorkizunean sakontzeko lan-ildoak, baldin eta Euskadik ahalmen produktibo indartsua izatea nahi badugu.

Bestalde, Afrikako auzia ikuspegi geopolitikotik aztertu behar da. Marokoko biztanleek kopuru oso garrantzitsuetan iristen jarraituko dute, Maroko, Espainiako eta Frantziako estatuekin eta Europarekin lotzen duten interes ugariengatik. Beharrezkoa da alderdi hori aipatzea, Euskadin horren orientazio eta kudeaketa proaktibo bat aurreikusteko eta adosteko.

Aztertutako errealitatea erakusten ari da, batez ere krisi garaian, errealitate desberdin horrek desberdina baztertzeko diskurtsoak sorraraz ditzakeela, gizarte-laguntzak, eskola-jantokiak edo edozein baliabide komunitario eskuratzeko aitzakiarekin. Gizarteratzearen eta gizarte integrazioaren eremuan ere baliabide publikoak eraginkortasunez kontrolatu eta kudeatzeaz gain, EAJ-PNVk pedagogia politiko eta sozial irmoa egin behar dela uste du, gure gizartean diskurtso xenofoboek eta gorrotoak inolako lekurik izan ez dezaten.

Euskadin, tradizio ideologikoen konbergentziagatik, oinarri moral partekatuak daude immigrazio-eredu propioa proposatzeko, egitate estruktural horri aurre egiteko eta erakunde arteko immigrazio-politika koordinatua eta eraginkorra egiteko. Errealitatea eta oraina hemen daude. Kontua da euskal gizartean bizi den biztanleria anitzaren etorkizuna berdintasunean eta aniztasunean kudeatzea.